



MUSIKA

# Klasiko garaikideak Zumarragan



ZUMARRAGAKO UDALA

**ANTIOKO  
XXXVIII.  
MUSIKALDIA**  
**SIGMA PROJECT SAX  
QUARTET ETA MARIO  
PRISUELOS (PIANO)**  
**EGITARUA:**  
**PHILIP GLASS,  
BERNSTEIN ETA  
GERSHWIN-EN LANAK**  
LEKUA: ZUMARRAGAKO  
ANTIOKO ERMITA.  
DATA: IRAILAREN 11

## MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Ilailero Zumarragako Antioko ermitan egiten den Antioko Musikaldia zikloak interes handia piztu zuen saio bat eka- rri zigun.

Ez da oso ohikoa lau saxofoiko forma- zioa entzutea. Jende askorentzako bene- tako sorpresa izan daiteke holako saio bat. Eta, benetan, laukote honen soinu- emaitzak inor axolagabe uzten ez duen gozotasuna eta sakontasuna ematen ditu. Gainera, talde hau, Sigma Project Sax Quartet, ez da auditorio guztietan behin eta berriz jotzen den musika in- terpretatzearekin konformatzen dena. Bere kideak musika garaikideari erabat emanak daude. Betiko programetatik kanpo musika ikuspegi berriez gozatzeko aukera ematen digute eta hori esker- tzeak da. Dena den, Zumarragan eskai- ni ziguten saioan gaur egungo musika

interpretatu zuten, baina neurri handi batean musika ezaguna zen. Publikoa- ren aldeko jarrera bermatuta zuten.

Hasteko, Philip Glass-en *Concerto for Saxophone Quartet* lanak taldearen tin- bre-fintasunak eskaini zizkigun. Lau in- terpreteek soinu belusatua lortu zuten eta publikoa Glass konpositorearen giro minimalista eta efektistan bildu zuten.

Kontzertuaren bigarren zatian, lau- koteak Mario Prisuelos pianistarekin partekatu zuen eszenatokia eta bi lan interpretatu zituzten: lehenengoa, Leonard Bernstein-en *Candide* operetaren obertura goxoa izan zen. Musika intzi- dentala da, ironiaz eta freskotasunez be- tea, eta laukoteak eta piano-jotzaileak trebetasunez interpretatu zuten.

Baina, zoritxarrez, amaitzeko, desas- trea iritsi zen. Saioaren une gorenaren

behar zuena, George Gershwin-en *Rhap- sody in Blue* lan ospetsua, esperientzia txar bihurtu zen, pianistaren exekuzio eskasagatik. Mario Prisuelosek karrera sendo samarra du, baina egia esan, *Rhap- sody in Blue* gehiegi da beretzat. Ezin zen moldatu pasarte korapilatsuenetan, non sistematikoki huts egiten zuen eta galdu ere egiten zen. Pasarte atseginetan edo errazenetan musikaltasun eta adie- razkortasun falta nabarmena zen. Sig- ma Project taldeko musikariak hutsune horiek betetzen saiatu ziren, baina oso zaila zen agerikoak ez izatea.

Azken akatsa bis bezala lan honen zati bat eskaintzea izan zen, non pianis- tak kontrola erabat galdu zuen. Pena, saxofonistak lehen mailakoak direlako eta bestelako luzimendu bat merezi zu- telako. ●